

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Urtarrilak 24, 135. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



MAITE TOLEDO
Hiru urtez Arrasate
Press-eko igarle




Hirigintzako trabak

● ● ● ● ●
EUSKARAZKO BIDEOTEKA

Euskara Zerbitzuak
herriko ikastetxe,
kultur elkarte eta
herritarren esku jarririk.

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



amar urte bete dira Le-moizko zentral nuklearra gelditu zela eta horri buruzko aipamen asko agertu da azken egunotan komunikabidetan. Horrelako lantegi baten aurkako protesten sinboloak ugari izan daitezkeen arren, maskararena izango da seguruenik sarrien azaltzen dena eta beharbada esanguratsuena. Horren testigantza ekarri dugu aste honetako Fotoberrira.

Sareak, arnasa babesteko tramankulua, beltza eta lutoa. Era horretako zentralik gure inguruan ez dugun arren, zabortegi kontrolatu gabeak, porlan hutsezko zibilizazioa, berdeguneak mugatzea, lantegietako kutsadura, zabor pila erraldoiak... guzti horiek eta beste batzuk ere badira naturarentzat bestea adinako mehatxua.



Jabier



UTILAJEAK

- **Doitasunezko mekanizazioak, plano eta langileen arabera**
- **Fresatzeko makinak**
- **Zenbakizko kontrola**
- **Mekanizazio-zentruak**
- **Tornuak**
- **Artezko makinak, etab.**

Zaldispe kalea, 10 (95. postakutxa)
ARRASATE Telefaxa: 79 80 97
 Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61

Goian Industrialdea (24. postakutxa)
01170 LEGUTIO Telefaxa: 45 54 74
 Tfnoak: (945) 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Jabier Ozaeta, Jon Etxebarria.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Gerraren aurkako Epaitegiak

Egun hauetan komunikabideek ekarri diguten albiste polit bat, munduko berrogei estatutan sorturiko Gerraren Aurkako Epaitegiak deritzatenari dagokion da. George Bush eta bere ideologiak suposatzen duen parafernalia hiltzailearen kontrako erreakzioak hain ugari gertatu ziren Golkoko gatazka-aren hasieratik, non gertarera latz hura piztu zenetik urtebetea eman denean Epaitegi herrikoak erafu diren, salakuntzaren oihartzuna lau haizetara zabaltzeko.

Egia esan, ez diet horrelako Epaitegiei inolako baliagarritasunik ikusten, ... salakuntzaren hedapenez aparte. Baliteke horrekin nahikoa izatea eta, beraz, Epaitegien osaketa justifikatuta egotea. Baliteke. Baina arraro xamar egiten zait, protestako erakusketa horiek omen duten helburuak goia erdietsiko duenik uste izatea. Eta, honatx agerian kontraesana iruditu daitekeena, ni neu Epaitegi horien aldekoa nauzue.

Vietnameko gerran ifaramerikarrak, mendebal estatuen partaidetza ixilaz egin zituzten hilketa eta suntsiketak ikertzeko, Russel izeneko Epaitegi herrikoia osatu zen. Kontzientzia pittin bat zuen edozein pertsona dardar bortitzean jartzeko

moduko krimenak salatu zituen erakunde harek. Hogei urte geroago, erraldoi estatubatuarrak gaiztakeria berberak zerbitzatu dizkigu, sotiltasun eta prestakuntza azkarragoz. Gure gizartea, telebistatik erakusten zitzaizkion irudi ikaragarriak dastatu ondoren, kexu agertzen zen. Ez zegoen eskubiderik!... Baina espetakuluak lehentasuna zeukan.

Orain epaitegiak antolatzen dira. Baina heriotzeko industriaren makinak bere martxa darrai, zeren Golkoko gerrak xederen bat baldin bazuen, hori industria amerikarraren suntsiketarako merkantzia saltzea bait zen. 1972an, Sam osabaren loben garaiko lehendakariorde zen Spiro Agnew aluzinanteak zera zioen, "Vietnam da guk amerkarrok inoiz burutu dugun ekintzarik bidezkoena". Hogei urte geroago Irak eta Kuwaiten egondako soldaduak Estatu Batuetara itzultzean jaso zuten ongietorri aintzatsua gogoratzea besterik ez dugu egin behar historia errepikatu egiten dela frogatzeko.

Gerraren kontrako Epaitegiak eratu beharrean, behin eta betiko armagintzaren kontrakoak sortuko balira, gaitz guztien burua moztuko litzateke. Gainerako etxaferu guztiei polbora busti egingo zaie.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84


MUSAKOLA
OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



ECUADOR

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

**Irunberrin gertatukoaren ondorioz
13 gazte epaituko dituzte
Bergaran asteartean**

1990eko ekainaren 25ean tiroketa baten ondorioz Goardia Zibil bat hilik suertatu zen, ia 24 ordu beranduago eta Goardia Zibilez inguraturik zegoen Irunberriko atxarteetan, Jon Lizarralde eta Susana Arregi euskal militanteak hilik agertu ziren, biek buruan tiro bana zutelarik. Ehundaka metrotara eta ordu batzuk beranduago German Rubenatx, hirugarren euskal militantea larriki zauriturik «aurkitu» zuten, hura ere buruan tiro bat zuela.

Gertakarien berria zabaldu bezain pronto, Hego Euskal Herriko hainbat herri eta auzotan mobilizazio ugari izan ziren, gertakaria Goardia Zibilaren sarraski bezala salatuz.

Arrasaten ere San Juan jaiak samintasunak jota gelditu ziren eta 26ko arratsaldean gertatua salatzeke mobilizazio bat burutu zen. Manifestazioa Lau-Bideko bidegurutzera heldu eta bide mozketa paketsua burutzen zen bitartean, hainbat gazte barrkada bat eraikitzen zeudelako aitzakiaz, Ertzantzak inolako arrazoirik gabe jendez beteriko inguruetan karga desproporzionatu bat burutu zuen; ondorioz, manifestari eta Ertzantzaren artean enfrontamendu gogorrak izan ziren, horietako batetan Ertzain bat pistola ateratzera iritsi zelarik.

Gertakari honen ondorioz eta hamar egun luzetan zehar Arrasateko 10 gazte, Bergarako 2 eta aretxabaletar bat atxilotu egin zituen Ertzantzak.

Irunberriko gertakarien ikerketak argirik eman gabe jarraitzen duen bitartean, urtarrilaren 28an goizeko 10'30etan Bergarako entzutegian aipaturiko gazteetako 12 epaituko dira «desordenes públicos» akusaziopean, fiskalaren eskaria urte bete eta egun bateko gartzela zigorra delarik.

Epaituta hori dela eta, Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak behin eta berriz dio Euskal Herriak sufritzen ari den egoerari irtenbidea emateko errepresioa ez dela bidea.

Epaituriko gazteei elkartasuna adierazteko eta Ertzantzaren jokabidea salatzeke, asteartean, hilak 28, egingo

diren ekintzetan parte hartzeke deia egin nahi dugu.

ARRASATEKO AMNISTIAREN ALDEKO
GESTORAK

Mondrazaleari

Mondrazaleek igandero igandero dute aukera ATBko *Mondragol* saioan bere taldeak zer egin duen ikusteko, partidua etxean edo kanpoan jokatu. Astelehenetan ere, Mondrasporten, beste kiroletaz gain Mondraren partiduen laburpena eskaintzen du ATBk. Igandean etxean ez zeudenentzat bigarren aukera.

Gainera, eta hori Iñaxio Garrok ondo daki, Mondrako jokalaria eta entrenatzaileak astero daukate ATBk grabatutako partidua osoaren kopia. Egindako lana ikusi eta taldeak hobekuntzarako erabil dezan.

Honelako jarraipena Euskadi osoan Reala, Athletik eta Osasunaz gainera ez du beste inork inongo herritan.

Horretaz gain, astean zehar Mondraren inguruan albiste bat sortuz gero *Berriak* saioan aipatzen da eta halaxe gertatu zen atezain berriaren fitxaketa-ekin ere.

Txutxini buruz esandakoak honako hauek dira: "Txutxin, sarritan partidua ederrak egin dituen atezain gazteiztarra, azken boladan ez dabil larreiko fin". Eta erakutsitako imajinak berriz ez dira guk asmatutakoak, irudietan jasotakoak baizik.


Garbi gera bedi egun horretan esandakoak Mondrazaleen artean zelaian eta Arrasaten bertan jasotako eritzien islada besterik ez zutela izan nahi. Eta bai Txutxinek edo edonork gauzak ongi eginez gero ere, gorapatzen direla ATBn. Bermioren kontrako partiduan, urrunago joan barik.

Egia da Mondrak berak igandero zelaian bezala, ATBk egunero zuen pantailetan ere ez duela dena ongi egiten. Baina ona eta ez hain ona, guztia dago kontatu beharra.

Eta, jakina, ATBkoek Mondra sailkapenaren gorenean nahi genuke noski. Hala izango al da!

ATBKO LANTALDEA

Superstiziosoa zara?



**Josu Xabier Aranguren
(Ikaslea)**

Ez. Hori pertsona bakoitzaren arabera dago eta norberak ikusiko du. Norbaitek pentsatzen badu badela edo izan behar duela, berak ikusiko du.




**Milagros
(Etxekoandrea)**

Ez, bat ere ez. Nik uste dut hori pertsona debilen kontua dela. Ez dakin zela esan, baina pertsonalitate gutxikoen kontua dela iruditzen zait.




**Belen Egiluz
(Etxekoandrea)**

Ez, ez naiz. Norberak nahi duena pentsatzea dauka, niri ez zait gaizki iruditzen.



**Martin Nafarrate
(langilea)**

Ez, baina bakoitza libre da nahi duenetan sinisteko.



**Gaspar Fernandez
(Jubilatua)**

Bai, oso. Gauza batzuk ebitatu, beste batzuri beldurra izan ...biak. Niri gauza asko gertatu zaizkit eta gauza asko ikusten dira. Baina ni ez nago oso sartuta horrelako gauzetan.



**Begoña Gonzalez
(Umezaina)**

Ez. Ez dakit zer esan, baina ni trankilago bizi naiz hori baino.

**BEHERA PENETAKO
AZKEN EGUNAK!!**

ARRIARAN

- Txamarra, jertse, alkandora eta konjuntokak%50
 - Soinekoak%30
 - Umeen erropak%20
 - Bakeroak 3.500etik 8.500era
- ZUEN ZAIN GAUDE!**

Otalora, 29 ARRASATE Tfnoa: 77 05 61

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Arétxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Arétxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHILTZAILERAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTEARRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------	----------



24

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Código azul" (5-7.30-10).
- Tetan *La Karkoma* txotxongilo taldearen emanaldia gazte-txean.
- 10.30tan, gaztetxean, Sociedad Alcoholic, Eskoriatza eta Etsaiak musika taldeek eskainitako kontzertua.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

25

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Aurora boreal" (5-7.30-10)
- Asteburuko masaia ikastaroa haserakoa.
- 6etan *Jake Mate* antzerki taldeak *Itzala* izeneko obra antzetzuko du, gaztetxean.
- 10.30tan *Malaña*, *Pichones* eta *Tijuana in Blueren* kontzertua Gaztetxean.
- Goardiako farmazia: J. A. Irizar, Erguin.



Futbitoa

- Larunbatetik igandera bitartean, partidu ugari Zaldibarko futbito txapelketaren barruan.

Pilota

- Igande goizean, 12etan, Iturripen Euskal ligaren barruan, Arrasate eta Durangoko Atxarte taldeen arteko norgehiagoka.

26

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Aurora boreal" (5-7-9.30)
- Mendi irteera. Goizeko 7etan, Puerto de Urto-Arano Besaide
- 7etan EKEKEI txotxongilo taldearen antzetzpena Gazte-txean.
- San Viator ikastetxean, eguerdiko 12.30etan San Felipe Apostol funerariaren batzar nagusia.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santa Marina.

27

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Aurora boreal" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala..

28

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Aurora boreal" (7-9.30)
- Sukaldaritza ikastaroa arratsaldeko 3etan, San Andre-seko *Torrepe* Elkarteak.
- Gantxilo ikastaroa, arratsaldeko 3etan, AEDko lokaletan.
- Hitzaldia: "El Salvadorreko bake-akordioa", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

29

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Alberto Azkoaga, Ferrerías.

30

OSTEGUNA

- Sendabelarren ikastaroa, arratsaldeko 3etan, AEDko lokaletan.
- Parrokian, pakearen aldeko otoi-tza arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: S. Español, Iturriotz.

Eskubaloia

- Igande goizean, 12etan, Iturripen Arrasate-Aloña, gazte-mailan.

Ikastaroak

• Sukaldaritza

Asteartea 28an arratsaldeko 3etan, San Andreseko Torrepe Elkartean, EKIN, AEDko emakume taldeak antolatutako sukaldaritza ikastaroaren azken saioa izango da.

• Gantxiloa

Urtarrilaren 28an, asteartea, AEDko lokaletan eta EKIN emakume taldeak antolatuta gantxilo ikastaroaren azken saioa izango da, arratsaldeko 3etan.

• Sendabelarrak

Urtarrilaren 30ean, osteguna, arratsaldeko 3etan eta AEDko lokaletan sendabelarren ikastaroaren azken saioa.

• Fedea Sendotzeko ikastaroa

Ikastaro honen bigarren aldiko klaseak hasita daude da goeneko eta ohizko ordutegia dute: astelehenez gaueko 9etan eta asteartetan arratsaldeko 3.30etan, San Juango Abadeteke lokaletan, ezkerreko aretoan. Herritar guztientzat gonbitea.

• Euskal Dantza

10-14 urte bitarteko Gazte-txoei zuzendutako euskal dantza ikastaroa *Lore Gazteak* taldeak antolatuta. Otsailean hasiko da, ostegunetan 6.30etatik 7.30etara eta doan izango da. Izena eman nahi duten guztiak Gazteentzako Informazio Bulegoan egin beharko dute lehen bait lehen.



Alberto Encinasen omenez

Musika, antzerkia eta txotxongiloak Gaztetxean

Asteburu honetan hainbat ekitaldi burutuko da Arrasateko Gaztetxean Alberto Encinasen askatasuna eskatzeko. Arrasatear hori, joan den urteko azaroaren 9an atxilotu zuten bere burua ertzainategian entregatu eta gero. Zazpi hilabeteko kartzela zigorra ezarri diote.

Hasteko, Ostiralean, urtarrilak 24, alde batetik, arratsaldeko 7etan, *La karkoma* txotxongilo taldearen emanaldia egongo da ikusgai; eta bestetik, 10.30etan, *Sociedad Alcoholicola*, *Eskoriatza* eta *Etsaiak* musika taldeek eskainitako kontzertua.

Larunbatean, berriz, arratsaldeko 6etan Oretetako *Jake Mate* antzerki taldeak *Itzala* izeneko obra antzeztuko du. Gaueko 10.30etan ostera musikaren txanda: *Malaña*, *Pichones* eta *Tijuana in Blue*.

Igandean, azkenik, arratsaldeko 5etan herri poteoa egingo da, eta 7etan, berriz, *Ekekei* txotxongilo taldearen antzezpena egongo da ikusgai.

Batzarra

• San Felipe Apostoleko Batzar Nagusia

Urtarrilaren 26an, igandea, eguerdiko 12.15etan San Viator Ikastetxean San Felipe Apostoleko Batzar Nagusia izango da. Bertako gai zerrenda honako hau izango da: Azken batzarreko txostena irakurri eta onartzea. Azken urteko ekintzen txostena irakurri eta onartzea. Diru kontu balantzea irakurri eta onartzea. Aurtengo administrazio gastuen aurrekontua. Zuzendaritza batzordea berritzea. Eta azkenik, galdera erantzunak.

Bestalde, egun berean, goizeko 11etan Juan Bataiatzearen elizan hildako Bazkideen aldeko meza izango da.

Deialdiak

• Otoitza

Osteguna, arratsaldeko 8etan parrokiaren pakearen aldeko otoitza izango da, Gandhiren urteurrena dela eta. Parrokiako taldeak gonbitea luzatu die herritar guztiei.

• Bideo emanaldia

Monterronen, urtarrilaren

30ean, osteguna arratsaldeko 7etan, Frente Polisarioari buruzko bideo emanaldia izango da.

Erakusketak

• Tindufeko errefuxiatuena

Arrasateko Komite Internazionalistak antolatuta, hasiera baten Mendebaldeko Sahararen independentziari buruz egin behar zen erreferendunarekin bat etorritz, 28tik 3era Monterronen, Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetako bizimodua azalduko duen erakusketa bat izango da.

• Angel L. Perales

Urtarrilaren 30era arte Angel L. Perales pintorearen lanen erakusketa Bergarako Nahikari tabernan. Bergarako Mahasterrera kaleko 20an kuadroak ikusteko aukera.

Hitzaldia

• El Salvadorreko bake akordioari buruzkoa

Urtarrilaren 28an arratsaldeko 7etan Monterronen El Salvadorreko bake akordioari buruzko hitzaldia izango da. Hizlariak, Placido Erdozain, apaiza eta urte askotan bertan bizi izandakoa, eta Agurtzane Urizar arrasatearra, El Salvadorren askotan izandakoa, izango dira. Moderatzailea, berriz, Tonino Mendizabal izango da.



“Ezker abertzalekoa naizela idatzi izan da, baina nik ez dut sekula horrelakorik esan. Eskubitarra naizenik esan ez dudalako ezker abertzalekoa al naiz? Hain zaharkitua ikusten dut gaur haren terminologia! Ni euskotarra naiz, eta beraz demokrata. ‘Ezkerra’ eta antzekoak...

(...) Hemen ez dago politikaririk, eta ez dugu ia sekula izan. Hauxe da, Euskal Herriak egindako akatsik handiena. Herria beti izan da borrokarako prest, baina ‘politikariek’ porrotera eraman dute beti.

(...) Gu abstentzioaren aldekoak izan gara beti. Baina abstentzio aktiboa eskatzen dugu. Abstentzioa harrera politiko bat da. (...) 1977an instituzioak onartzearekin batera, Euskal Herrian PSOEkoak UAkoak eta PPkoak egon daitezkeela onartu genuen. Legitimatuta egin ditugu. Zein herritan ikusi duzu atzerriko alderdirik hauteskundeetan? Hori hemen bakarrik gertatzen da”.

Joseba Ariznabarretak Argia astekarian (1992-1-12)

“Azken finean gerta litekena da, Buesak bere arauen marko ezin pobregoa zabalduz amaitzea legealdia, Hezkuntz Proiektuan beharrezkoa den kontsentsutik abiatu gabe berriro ere; nire iritziz kontsentsuari legegintza garapenari baino lehentasun handiagoa eman behar zaio eta jokabide horrekin berriro geldialdi legislatiboa, euskal nazionalismoaren haserrea eta frustrazioa sakondu eta euskal gizartea zatitzea lortuko litzateke.

Hala ere, komunikabide eraginkorretan ondo bideratutako nazionalismo espainolari atxekitako jendearen txalo ozenak, ez dizkio inork kenduko”.

Pedro Mendietak Egunkarian (1992-1-17)

Maniobra militarrik Aramaion

1988. urtean milaitarrak Albina inguruan maniobrak egiteko akanpada egin zute. Akanpada egiteko eta lurrak erabiltzeko ez zen eskaera ofizialik egin. Udalak, maniobrak egiteko lur hoiere erabilpenari uko egin zion. Hiru urte iraun duen auziaren emaitzak, lurrak baimenik eskatu gabe erabili ditzaketela (edozein etxetara sar daitezkeela) esaten du.



Oraingo Udalak emaitza ez du onartzen baina hiru arrazoi hauengatik ez du aurrera jarraituko:

- 1) Irabazteko posibilitate eskasa.
- 2) Aurrera jarraitzeak suposatuko duen dirua.
- 3) Ezezko erantzun gehiago bila dezakete.

Oraingo Udala honelako ekintzen aurka dago eta errepikatuko balira, lurren erabilpena eragozteko erabaki egoki bat hartuko luke, arrazoi hauek kontutan izanik:

1) Lurren erabilpen guztiak baimenaren premia dute (jabegoaren eskubideak) Udala erabilpenaren arduraduna delako, bai osasun, hondakin, etab. ... aldeko arrazoiak kontuan izanik.

2) Maniobrak beren kuarteletan egin ditzatela, ekintza horietako egokituak eta beren jabegokoak direlako, eta beste leku batzutan egiten dituztenean, jendearengan ondoeza sortzen dutelako:

- a) Ingurutik pasatzeko beldurra eta askotan ezina.
- b) Militarrik janaria, etab. eskatzera baserrietara gehienbat hurbiltzen joaten direla ikustean beldurra.
- c) Hutsegiteen posibilitatea, armak erabiltzeagatik beste pertsonak zauritzeko arriskua.

J. R. URIBE


ARAMAIOKO ALKATEA

BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean



Cercas bajas, 34 GASTEIZ



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

Oñati

• **Juan Karlos Irizar eta Soraia Agirreraren kontzertua.** Igandean, hilaren 26an Juan Karlos Irizar eta Soraia Agirre-egoikoa azken diskaren aurkezpena egingo da Oñatiko Santa Ana antzokian, arratsaldeko 7.30etatik aurrera. Hasiera batean, diskaren aurkezpena urtarrilaren 12rako iragarri zen, baina Soraia Agirre-egoikoa gaixotu eta aurkezpen hura bertan behera gelditu zen. "*Sobran las palabras*" izenburua jarri diote Juan Carlos Irizarren disko honi eta esan beharra dago aurkezpen saioa dohain izango dela.

• **Kultur egitaraua.** Otsailarako Udalak prestatu du dagoeneko kultur-egitaraua. Pintura, argazkilaritza, dantza eta esku-lanei buruzko ikastaroez gain, kanpora-begira ekintza interesgarri batzuk badaude: hala nola, *Benjamin Tehobal* orkestragizonaren kontzertua otsailaren 1ean eta *Gal-dakaoko* bandaren kontzertua, otsailaren 16an.



Bergara

• **Gartzela berritua.** Bergarako gartzela zahar-berritua gaurdanik kultur-areto bezala erabili ahal izango da. Lantegi-Eskolako ikasleek hiru urteren buruan egin duten lana bukatu ondoren. Berritze lanek 18 milioiko aurrekontua izan dute eta 43 langileren artean egin dira.

• **Epaituak.** Joan den astean, Madrilera Entzutegi Nazionalan Pedro Belastegi, Jose Luis Loidi, Maria Eugenia Gracia bergararrak, Maite Guridi antzuolarra, Bittore Aierbe elgetarra eta Iñigo Akaiturri zornotzarraren aurkako epaiketa burutu zen. Epaietari goizeko 11.30etan eman zitzaion hasiera eta gaueko 9.30etan bukatu zen. Epaiaren erabakiaren zain gelditu behar orain.

• **Hitzaldiak UNEDen.** Otsailaren 15etik 11ra bitartean, UNEDen "Kuaternarioa Euskal Herrian" izenburupean hitzaldi-sorta egingo da. Hitzaldiez gain, ibilaldiak ere egingo dira. Eskolak larunbatero izango dira, goizeko 10etatik eguerdiko 1etara bitartean. Matrikulak 13.000 PTA balio du eta otsailaren 13a baino lehen egin beharko da.

Aretxabaleta

• **Garrasi isila.** Joan zen ostiralean *Garrasi Isila-Gesto por la Paz* erakundeak deitutako konzentrazioa egin zen lehen aldiz. Durana kalean, Herriko Plazaren parean 90 lagun inguru bildu ziren eta aurrerantzean edozein eratako atentaturen bat dagoen bakoitzean konzentrazio isila egingo da ordu laurdenez, iluntzeko 8etatik 8.15etara. Oñatin lehenago hasia zen, inguruko herrietan lehen da Aretxabaleta.



• **Aretxagazeta aurrera.** Otsailaren 15ean kaleratuko *Aretxagazeta* aldizkaria berriro. Orain arte hiru hilabete behin kaleratzen zena, aurrerantzean hamabostean behin aterako da eta bazkideak egiten ari dira.

IZAGIRRE
harategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate

ETXEPARE - BILINTX
LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50



Udal Ordenantza

Hirigintza, Obra eta Ingurugiro Batzordeak Udal Ordenantza bat burutzen ari da, bide publikoa okupatzea, itxierak, kartel iragarleak eta abar arautzeko. Ordenantza honek, obrak bukatu ondoren edukiontzia kenzeko derrigortasuna, afektatutako lekuen garbiketa eta segurtasun-araudia betetzea, agertzen ditu besteak beste. Honi buruz ideiak ematea interesgarria denez, eraikitzaile eta bestelako gremioentzako eta baita gai honetan interesik duen edozeinek ere, otsailaren 15a baino lehen, Hirigintza sailera zuzendu daiteke, Arantza Sanz-engana, ideiak eman eta sugerentziak egiteko.

Hotz-beroak

Iazko azken hilabetean izandako temperatura altuena 14,5 gradutakoa izan zen; bajuena, berriz, 4,5 zero azpitik. Euri gehien egin zuen eguna, abenduaren 21a izan zen eta 7,9 litro jaso ziren. Abenduaren 23tik aurrera hile honetako temperatura bajuen arteko bajuenak izen ziren, denak zero azpitik. Hileko gaitzaren egunetan, ostera, bakarrik egun baten egin zuen zero azpitik. Urtarrilean, berriz, egin duen temperatura altuena 11,4 gradutakoa izan da eta bajuena 3 gradutakoa zero azpitik. Temperatura hau lau egunetan izan dugu. Hile honetan bost egunetan egin du euria, horietatik ur gehien jaso zen eguna urtarrilaren 10a izan zen, 8,5 litroekin. Azkenik, aste honetan elurra ere iritsi zaigu.


ONGIETORRIA JAIOBERRIEI

Txomin Gallastegi Etxebarria, abenduaren 9an.
Olatz Azkarate Arrizabalaga, 16an.
Unai Legarda Izarzelai, 18an.

Txandaka

SILIKONAZKO PROTESIAK MINBIZI SORTZAILE?

Hasteko, kontu handiz hitzegin behar da guzti honetaz, gauzak bere lekutik atera eta nahastu baizik ez bait dira egin, zertaz ari garen ere jakin gabe. Emakume asko dira arazoak ikututakoak, bai estetika hutsagatik eta baita mastektomiaren ondorioz bularra berreraikitzeke zirurgia egin dutenak. Estatu Batuetan milioi bat baino gehiago direla esaten da.



Txomin Murgiondo
(*)

Bestalde, silikonazko protesiak gorputzaren atal askotarako erabiltzen dira, eta atentzioa ematen du minbizi kontuak bularrekoetaz bakarrik aipatu izanak. Horregatik, oso garrantzitsua da eman duten 45 egunetako moratoria, martxoaren hasieran amaitzen dena, errespetatzea eta epe horren ondoren FDA erakundeak zer erantzun ematen duen ikustea. Ez dakigu gainera era autoimmuneko arazo bat den, eta horregatik gerarazi duten era honetako interbentzioak egitea, edo silikona-minbizi kontua den. Ez dakigu gaizki etiketatuta dauden, esterilizatuta gabe, edo zer den arazoa. Dena dela, silikonazko protesiak ongi itxitako poltsak direla, eta gainera bularrean jartzerakoan giharre pectoralaren atzetik jartzen direla kontutan izanda, esango nuke nahiko


zaila dela minbizia sortzea, poltsa bera baita bularra ikutzen dagoen bakarra eta giharrearen babesa du gainera. Badakigu, gainera, medikuntzako edozein gaik pasa behar izaten dituen kontrolak nolakoak diren. Injekzio bidez silikona likidoa sartzen dela ere zabaldu da hainbat komunikabidetan, baina hori

nik neuk ez dut sekula ikusi eta gaur egun erabat debekatuta dago. Era honetako ebakuntzen konplikazioak ugariak izan daitezkeela egia da, baina horien artean sekula ez da orain arte minbiziarena aipatu, inork ez du behintzat ikerketa serioerik egin.

Zainketa berezirentzuan, dozein emakumerentzat aldi behingo rebisioak beharrezko badira, zer esanik ez protesia duen emakume batenentzat. Egia da minbizi diagnostikoa egitea erraztu ez dela egiten, baina ez dago aparteko zailtasunik protesia izateagatik.

Ez dut esaten ezer egongo ez denik, baina horrelakorik gertatu eta erabat horretara emanak gauden profesionalok ez jakitea arraroa behintzat bada, eta oraingo moratoriaren ondoren zer esaten duten zain egotea izango da zuhurrena.

(*) **BULAR PATOLOGIARAKO ADITUA**



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behe. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
 aurrekontuak

Otalora Lizenziatua. Arrasate



Kiroldegi gainean dagoen eraikuntza handitu eta egokituko dute musika taldeentzat

Rock taldeen lokala konponduko

8 milioi herriko musika taldeek erabiltzen duten lokalerako

Kiroldegi gainean dagoen deposito ondoko eraikuntza egokitu eta handitu egingo du Udalak orain artean Arrasateko musika taldeen entsaiu tokia izan da, eta hemendik aurrera ere, erabilera bera izango du. Lanak datorren astean hasiko dira.

Lanak egiteko Udalak 8 milioitako aurrekontua du eta orain arte bi taldeentzako tokia bazegoen ere, egokitze lanak bukatutakoan eraikuntza horretan entsaiatu ahal izateko lau areto izango dira. Horretaz gain, biltegi txiki bat jartzeko asmoa dago, taldeek erabili beharreko materiala bertan gorde dezaten.

Orain arte, zortzi taldek erabili dute deposito ondoko eraikuntza hori eta Udalaren asmoa, Arrasaten dauden hamasei-hamazazpi taldek erabiltzekoa da. Oraingoan, hamabi taldek eman dute izena entsaiu-toki hori erabili ahal izateko.

Normala denez, entsaiu-tokia egokitzeaz gain erabilera-araudia ere presatatu dute Udaletxean. Araudi horren arabera, Udala argia, ura eta beharrezko konponketen kargu egingo da; musika taldeak, berriz, mantenimendua eta garbiketaz arduratu beharko dira. Talde bakoitzari giltza bana emango zaio eta taldea bera izango da lokala behar bezala erabiltzearen arduraduna. Erabilera ordutegia mugatu egin da goizeko hamarretatik gaueko hamarrak arte eta musika-taldeen artean erabaki beharko dituzte txandak. Horretarako eta eska-riak egin, beharrak aurkeztu edo behar dena konpontzeko hilerok bilera bat egingo da Udala eta taldeetako ordezkarien artean.

Orain Udaletxean erroldatuta dauden taldeak hamasei-hamazazpi badira ere, berriren bat sortuko balitz, entsaiu-tokia erabiltzeko eskubidea izango luke.

Usteak uste

“Desconocido” jartzen zuen kartazalak.

Argibide gisa, esan behar dut espetxetik bueltan zetorren eskutitza zela. Eskutitza jaso behar zuena igorritako helbideko biztanle behartutari-ko bat zela eta eskutitza iritsitako egunetan bertan zegoela jakinda, “Desconocido” horrek zer nahi zuen esan? Ez da horrelako bat ikusten dudana lehen aldia, urrutira joan barik, Arrasate Presseko ale ugari ere, ikus daitezke “Desconocido”ren zigilua azalean jarrita.

Lagun artean komentatu nuen. Koadrilan, jarrera politiko desberdinen topagune izanda, erantzuna ahobatekoa izan zen: “Joder, inor baino hobeto kontrolatuta dauzkate eta gero ez dituztela ezagutzen esan, hori aurpegia hori!”

Aurpegia? gehiago izango da seguruenik. Behintzat niri espetxeetan bizitzera behartuta daudenen babesgabe-kerian pentsa arazten dit. Pinochet-i galdetu zioten moduan, “Desagertutakoak? Txilen ez dago desagertu-takorik”. Hemen bai, antza.

BEÑARDO KORTABARRIA

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



SAMEGO
GARBIKETAK

Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

Casa del Puebloaren aurkako hamargarren eraso

Joan zen ostiral gauek larunbat goizaldera bitartean ezezagun batzuk PSOEko Casa del Puebloko atzekaldeko kristalak apurtu eta koktel molotov bat bota zuten barrura. Horren ondorioz, su txiki bat sortu zen sozialisten egoitza. Erzandegian abisu jaso ondoren, erizain talde bat sozialisten egoitzara eta sua itzaltzea lortu. Koktel molotov-ak kalte materialak besterik ez zituen eragin, koktela bota zutenean barruan inor sartu zen ez zegoelako. Arrasateko Casa del Pueblo-aren aurka egiten den hamargarren ekintza honek sortutako kalte materialak ez ziren garrantzi handikoak izan.



Kalean egindako ekintzetan jaso da dirua

1.700.000 PTA Egunkariarentzat

Abenduan burututako kanpainaren balantzea kaleratu da

Egunkariaren aldeko kanpaina abenduan zehar burutu bazen ere, Egunkaria Batzordekoek aste honetan dute balantzearen aurkezpena, Arrasaten 1.700.000 PTAko etekina eman duen kanpainarena hain zuzen. 10.300 boleto saldu omen dira tonbolako 32 saltokietan, beste 345 bonu eta 100.000 PTA lortu dira kuestazio eta materialetan.

Diru-kontuen aldetik balorazioa zeharo baikorra den moduan, abenduan Egunkariak ateratako ale berezien zabalpenaren balorazioa ere oso baikorra

da, 5.000 aleren banaketak behintzat Egunkaria ezagutarazteko balio izan duelako. Ale bi horietan publizitateak izan duen jokaeraz egiten zen balorazioa ere ona zen, ez zen eta arazorik izan behar beste lortzeko.

Aurrera begira, Arrasaten harpidetun kanpaina egiteko asmoa adierazi da, hemen Egunkariaren ale gutxi saltzen dira eta. Alde horretatik, jendearengan Egunkariari laguntzeko jarrera nabarmena aipatzen zen; ez, ordea, hainbeste, egunero irakurtzekoa.



ARRASATEKO UDALA



IKERKETA BAT EGITEKO TEKNIKARI BAT KONTRATATU NAHI DA

Eginkizuna: "Zenbait Udalen arteko konparaketa. Aurrekontua, antolakuntza egiturak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak" izena daraman ikerketa egitea, udal teknikari baten zuzendaritzapean.

Kontratua: Lan-erregimenean, 6 hilabeteko iraupenez.

- Baldintzak:
- Unibertsitateko goi mailako titulua.
 - Administrazio Lokalean eskarmentua.
 - Euskararen ezagupena (3. H. H.).
 - Premiazko aplikazio informatikoen ezagupena.

Izen emateak: otsailaren 5a baino lehen Udaletxean, "Curriculum vitae" delakoa aurkeztuz.



Ezer interesgarririk ez zuten aurkitu eta obrak aurrera jarraitzen dute.

Santa Barbarako obrak aurrera

Azterna arkeologikoengatik geldituta egon ondoren

Pasa den asteburuan, Santa Barbara parkeko obrak gelditzeko agindua eman zuten Gipuzkoako Foru Aldundiak, bertan aztarna arkeologiko interesgarriak egon zitezkeela eta.

Arrasateko Udaleko teknikariak harrিতuta gelditu ziren Diputazioak bidali zuen berri honekin, obrak hasi baino lehen Udaleko teknikariek beharrezko ikerketak burutuak bait zituzten. Orduan ere ez zen aztarna arkeologikorik aurkitu Santa Barbara inguruan, hori dela eta obrak hasi egin zituzten.

Ondorioz, astelehen eta asteartean

lanak geldik izan ziren. Asteartean Arrasaten egon ziren Diputazioko teknikariak, Santa Barbara azterketak egiteko asmoz, baina egun osoan lanean jardun ondoren ez zuten ezer interesgarririk aurkitu.

Horrela bada, langileak eta makinak asteazkenean osterara ere lanera bueltatu ziren. 92 milioi PTAko aurrekontuaz (horietariko 43 Jaurlaritzak emango ditu), pasealekua eta egonlekuak hobetzeko asmoa dute besteak beste. Lanak udazkenerako bukatuta egon daitezke.

Iturbide egoitzan berritze lanak
50 milioi PTA inguruko aurrekontuarekin laster ekingo zaie Iturbide Egoitza egokitzeko obrei. Gaur egun egoitzak ez die bat ere erraztasunik eskaintzen bertan bizi direnei. Izan ere, gehienak mugitzeko arazoak dituzte eta etxeak ez ditu behar horietarako baldintzak betetzen. Aldaketa era batekoa izango da, ondorioz etxea goitik-behera eraberrituko dute.

Epaiketak Bergaran

Datorren asteartean Bergaran epaiketa burutuko da "desordenes públicos" akusaziopean Arrasateko 10 gazte, Bergarako 2 eta aretxabaletar baten aurka. Fiskalak urte bete eta egun bateko gartzela zigorra eskatzen du gazteentzat. Epaiketa dela eta bi dei egin nahi ditu, Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak: bata, goizeko 10etan Bergaran hasiko den epaiketara joateko eta horretarako Arbolapetan goizeko 9.30etan biltzeko; bestea, egun berean eta arratsaldeko 8etan Sebero Altubetik abiatuko den manifestazioan parte hartzera.

Anbulategian ordu berriak

Anbulategiko Osakidetzako medikuen kontsulta ordutegia aldatu egingo da datorren asteartetik aurrera: 8etatik 11.30etara Auzmendi, Belategi eta Segui Drak eta 12.30etatik 15etara Aberasturi (Ubiria) eta Urbina (Salaberri) Drak.



ARRASATEKO UDALA



EUSKARA SAILEAN ALDI BATEZ LAN EGITEKO TEKNIKARI BAT KONTRATATU NAHI DA

Eginkizuna: Arrasateko entitateak sinatutako "Euskararen erabilpena areagotzeko Hitzarmena"ren jarraipenaz eta garapenaz arduratzea.

Iraupena: 1993ko maiatzaren 31 arte.

Soldata maila: Udal Administrazioako 14 maila.

Baldintzak: Erdi mailako titulu akademikoa gutxienez eta euskara ondo menderatzea.


Izen emateak: Otsailaren 5a baino lehen Udaletxean, "Curriculum vitae" delakoa aurkeztuz.



Iturripe inauguratu aurretik, hamabost zuhaitz landatu zituzten. **Ganberroek ez dute atsedenaldirako as-tirik hartu** eta landatutako hamabost zuhaitz haietatik, orain lau bakarrik daude zutik, besteak apurtu egin dituzte eta. Iturripeko sarraskia ez zen horrekin bukatu eta hesiko pretilen goikaldea apurtzea ere bururatu zitzaion. Ekintza hau zeinek egin duen jakin ez arren, zentzurik ez duen norbait izan behar, seguru.



Astean Otalora Lizentziatuaren kaleko farola batek joan den aste gutxia medianan pasatu du **kotxe batek jota**. Astelehen goizean jaso zuten Udaleko brigadakoak.



Ferrerias kalean zaborrengatik istiluak izan dituzte berriro. Norbaitek ezordutan ateratzen dituela eta beste norbaitek protesta egin duela, kontua da bata bestea salatuz kartelak ere jarri dituztela. Gainera traste zaharrak ateratzeko ez al dago egun berezi bat izentatuta?

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora 2/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



▲
Fototrukoaren sarien banaketa egin genuen joan den astean, Arrasate Pressen bertan. Kotxearen

irabazlea **Koldo Oiangu-
ren** eta Canariasera bi perso-
nentzako bidaia irabazi zuena,
berriz, **Miguel Angel
Pascual Casado**; biak eta
sariak ematen zituztenak egin zi-
guten bisita.

Bestalde, azken *Fototrukoa* as-
matu zutenen arteko zozketaren
irabazlea **Leire Bedia** gaz-
tetxoa izan zen. ▶



Izen PROPIOAK

● Eskola Politeknikoko batzar orokorrean bazkide kolabora-
tzaileen ordezkari izendatu zu-
ten **Jose Antonio Altu-
na**. **Ane Arregi** eta
Miren Aranbarri, ber-
riz, onuradun bazkideen or-
dezkari. Azkenik, kontuhartzai-
le berria **Mertxe Elorza**
izango da.

● **Jon Andueza**, 25, ka-
zetari arrasatearrak, *Donostia
Hiria* ipuin-lehiaketa irabazi du
Kostaldean, *Absaloneko herris-
ka tipian* ipuinari esker. Ricar-
do Arregi saria bi aldiz, Berga-
rako ipuin lehiaketa eta AEDko
lehiaketetan izendapenak ere
lortu ditu orain ATBn lan egiten
duen gazteak.

● **Dani Larrea**, 32,
Arrasaten bizi den antzuolarra
izango da Lanbide Hastapene-
ko Zentruko zuzendaria. LH2
eta Itzultzaile ikasketak ditu eta
lan aldetik, AEKan irakasle,
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza
Saileko Trebatzaile eta IVAPen
hizkuntz normalkuntzako lane-
tan ibili da azken urteotan, eta
baita UNEDen EGA mailako
irakasle gisa ere.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen
aukera zabalena*

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Joan den astelehenean Gaztetxeoak aurkitu genituen, larunbatean egin zuten **babajanean** erabili zituzten ontziak garbitzen. Denok uste genuen baba gorriak jango zituztela baina, ondarrak garbitzen ikusi genituenean babak zuriak zirela konturatu ginen.



Elgoibarko Izarra euskararen aldeko taldekoak, **Maite Re-menteria** eta **Jasone Osoro**, etorri ziren joan zen ostira-lean Arrasate Press ezagutzera, *Txitxilibakio* aldizkaria berregitu- ratzeko asmotan daudelako. Nahi duzueanean etorri berriz ere.



Gazteluondoko ikastolako eskolaurrekoak pasa den astelehenean sonbrero eta tanbor egin zuten **tanborrada** San Sebastian eguna ospatuz. Umeak emozionatuta eta gurasoak kamara eta guztiz adurra dariola ikusten.

Construcciones ARRASATE S. L.


Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



Teknika beharra

Kirol gehienetan bezala, futbitoan ere teknika eta indarraren arteko oreka lortzea ezinbestekoa da.

Aipatutako bi ezaugarri horiei talde lana gehituz gero, futbito talde ona errealitate izatera irits daiteke, "norberanismo" esageratuak alperrikoak dira eta.



**ARRASATE
KIROLAK**

Astore, Nike, Reebok, Auia, Adidas, Converse, Mito, Ellesse, Boreal, Libero, Quicksilver, Le coq sportif, Millet, Saucony, L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE

Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 77 05 30



**ITURRIOTZ taberna
Girorik jatorrena!**

Tfnoa: 79 16 04



Zaldibarko Futbito-txapelketa

A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Akaitegi Express	11	8	2	1	108	32	18
Fosforos	12	8	2	2	66	31	18
Los Heredia	10	8	2	2	66	31	17
Zulu's	11	8	0	3	48	33	16
Adobe	11	6	3	2	41	36	15
G. P. Noski	11	5	3	3	54	25	13
Jubilatus	11	5	3	3	50	57	13
Kriskibalda	10	5	2	3	45	29	12
A. Kristaldegia	11	4	2	5	31	33	10
Koxkas	11	3	3	5	41	60	9
S. I. Ugarte	11	3	2	6	33	46	8
Uglys	10	3	0	7	26	35	6
Expert	10	1	3	6	28	59	5
B. D. L.	11	1	0	10	19	81	2
T. San Josepe	11	0	0	11	26	93	0
Los Manchas	—	—	—	—	—	—	—
Neanthertal's	—	—	—	—	—	—	—
Tronkoteak	—	—	—	—	—	—	—
Total	162	68	26	68	671	671	162

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Fasprint	13	9	3	1	60	25	21
La Banda	12	10	1	1	59	21	21
Los Motz	12	10	0	2	90	24	20
Potroak Lorategi	13	7	3	3	60	35	17
Navarros	12	8	1	3	48	24	17
Jo ta akabau	12	8	1	3	51	28	17
Danok Lagun	12	6	3	3	42	28	15
Sibilus Rover	13	5	4	3	29	28	14
Ganbelas	13	5	1	7	46	40	11
Anbotoste K. T.	12	5	1	6	40	46	11
Gau azkenak	12	4	1	7	33	41	9
Bukanak	12	4	1	7	34	55	9
Txintxes Osorik	13	4	1	8	30	46	9
Inter de Alima.	12	3	1	8	26	66	7
M. K. A.	12	3	1	8	27	64	7
Maria del Monte	12	1	0	11	25	75	2
Oleeel!	12	0	1	11	27	81	1
Totxus	—	—	—	—	—	—	—
Total	208	92	24	92	727	727	208

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida Haizea	13	12	0	1	68	13	24
Argi Ibilu Mapfre	13	10	1	2	83	38	21
Gnu Seg. Bilbao	13	10	1	2	42	13	21
AEK	13	8	3	2	51	36	19
Diego Antonio	13	8	2	3	51	34	18
Bar Kajoi	13	9	0	4	76	27	18
New Laso Arregi	13	7	2	4	41	30	16
Txokeros	13	6	2	5	45	33	14
Aizpun bila	13	7	0	6	54	67	14
ATB	13	5	2	6	49	50	12
Aurrera Boliel	13	4	3	6	40	36	11
Alaves	13	5	1	7	31	52	11
Sokoakoak	13	3	2	8	41	57	8
Arrasate Press	13	3	1	9	25	48	7
T. Monterrey	13	2	3	8	35	73	7
Shaktale	13	1	4	8	32	65	6
Bayer de Leniz	13	2	1	10	25	75	5
Whiskeria Linde	13	1	0	12	32	74	2
Total	234	103	28	103	821	821	234

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Arrasate Kirolak	12	10	1	1	51	18	21
Artzankos Udal.	12	10	0	2	56	25	20
V. C. Daglas	11	7	2	2	57	21	16
Bar Artano	12	7	1	4	49	38	15
Notxingan Flo.	12	7	1	4	41	32	15
Camerun's	11	6	2	3	46	33	14
Pepelus	11	7	0	4	41	26	14
Bizkorrak	11	6	1	4	37	28	13
Arrasate Comer.	11	6	1	4	25	24	13
Ghana	12	6	0	6	44	37	12
Hirei	11	5	1	5	32	27	11
Nagixak	11	3	1	7	24	44	7
Kakajauri	12	3	1	8	27	49	7
Ezkinako Hontza	11	2	1	8	24	55	5
Sukumurus	12	0	1	11	18	54	1
Atxanta ke te...	12	0	0	12	16	77	0
Balaik	—	—	—	—	—	—	—
Resakas	—	—	—	—	—	—	—
Total	184	85	14	85	588	588	184

JMA JMA



Ez da boxeoa, ezta baloia ukabikadaz urruntzera etorri den atezaina eta aurrelariaren arteko lehia ere, baloia eskuratu nahian araudiak onartzen duen mugetan dabilzan bi jokalariren arteko norgehiagoka, besterik ez!

EMAITZAK

A taldea

Los Heredia 5	Zulu's 4
Uglys 6	Talleres San Josepe 3
Jubilatus 6	Adobe 4
G. P. Noski 12	B. D. L. 1
A. Kristaldegia 2	Fosforos. 8
Koxkas 4	Expert 2
Kriskibalda 3	Sum. Ind. Ugarte 1

B taldea

Los Motz 18	Oleee! 1
Potroak Lorategi 3	Navarros 3
Gau Azkenak 1	Inter de Alimañas 2
Anbotoste K. T. 3	M. K. A. 4
Danok Lagun 0	Jo ta akabau 0
Ganbelas 0	Fasprint 1
Bukanak 0	Txintxes Osorik 4
María del Monte 1	La Banda 6

C taldea

Diego Antonio 1	Adelaida 6
Aizpun Bila 7	Bayer de Lenitz 4
Shaktale 4	Aurrera Boliel 4
New Laso Arregi 1	Txokeros 0
Monterey taberna 3	Argi Ibilii Mapfre 11
Alaves 6	AEK 3
Sokoakoak 6	Whiskeria Linde 1
Gnu. Seg. Bilbao 4	Arrasate Press 1
ATB 2	Bar Kajoi 5

D taldea

Pepelus 3	Notxingan florest 1
Bizkorrak 2	Atxanta ke te... 1
Artzankos Udalaiz 7	Bar Artano 2
Arrasate Kirolak 2	Hirei 0
Ezkinako Hontzak 3	Kakajauri 3
Sukumurus Anboto 0	Arrasate Comercial 2
V. C. Daglas 12	Camerun s Trikiti 5

Lorategi Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67.
ARRASATE

EDERRA TABERNA

Iturriotz, 12
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 25

BRANKA taberna

Zarugalde, 1 ARRASATE
Tfnoa: 79 21 13

B E T I S E G U R U

MIKEL LASA
Aseguru artekaria

Maalako Errabala, 33 etxebehea. ARRASATE
Tfnoak: 79 69 00 / 79 69 43



Txutak

Ihardunaldi erabakiorrak

Partidu interesgarri ugari jokatu ziren joan den asteburuko Zaldibarko futbito txapelketako ihardunaldian. *Los Heredia* taldeak, justu baina irabazi egin zion *Zulu's* taldeari; *Fasprint*-ek gauza bera egin zuen *Ganbelasen* aurkako partiduan, gol bakar bategatik irabazi 0-1. Diferentzia txikietatik jipoi handietara, gol askoko partidua ere ikusi ziren eta: *Los Motz*-ek 18 *Oleee!* taldeari, *G. P. Noskik* 12 *BDLri* eta *V. C. Daglas*-ek 12 *Cameruns-i*. Azkenik, emaitza harrigarriak dira aipagarri, *Artzankos*-ek *Bar Artanori* 7 eta 2 irabaztea ez da oso normala, *Alavesek* *AEKri* 6 eta 3 irabaztea normala ez

den moduan edo *Adelaidak* *Diego Antoniori* 5 goletako aldeagatik irabaztea ez den bezala; zentzu berean, *Anbotostek* *MKAkin* galtzea ezin da normalizat hartu.

Datorren asteko ihardunaldiari begira, neurketa interesgarrienak honako hauek izango lirateke: *Los Heredia - Akaitegi Expres*, *Adelaida - AEK*, *La Banda - Navarros*, *Artzankos Udalaiz - Arrasate Kirolak eta Bar Artano - Camerun's Trikiti*.

Bukatu aurretik derrigorrezkoa da sailkapenei begirada bat ematea, lehen faseari amaiera emateko lau ihardunaldi besterik ez dira falta eta. Oraingoz, ia sailkapena ziurtatuta daukaten taldeak hauek dira: *Arrasate Kirolak*, *Artzankos Udalaiz*, *Akaitegi Expres*, *Fosforos*, *Los Heredia*, *Zulu's*, *Adobe*, *Fasprint*, *La Banda*, *Los Motz*, *Adelaida*, *Argi Ibili* eta *Gnu. Seg. Bilbao*.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEAN

A taldea

Los Heredia	Akaitegi Expres
Jubilatus	G. P. Noski
Uglys	Koxkas
Expert	Krskibalda
Adobe	Sum. Ind. Ugarte
T. San Josepe	B. D. L.

B taldea

Los Motz	Ganbelas
Potroak Lorategi	Maria del Monte
Anbotoste K. T.	Danok Lagun
Gau Azkenak	Bukanak
La Banda	Navarros
MKA	Sibilus Rover
Oleee!	Fasprint
Inter de Alimañas	Jo ta akabau

C taldea


Diego Antonio	Alaves
Aizpun Bila	Gnu. Seg. Bilbao
New Laso Arregi	Monterrey taberna
Shaktale	Sokoakoak
Whiskeria Linde	ATB
Arrasate Press	Bayer de Lenitz
Txokeros	Bar Kajo
Adelaida	AEK
Aurrera Bolie!	Argi Ibili Mapfre

D taldea

Nagixak	Ezkinako hontzak
Pepelus	Ghana
Artzankos Udalaiz	Arrasate Kirolak
Bizkorrak	Sukumurus Anboto
Arrasate Comercial	V. C. Daglas
Bar Artano	Camerun's Trikiti
Atxanta ke te merece	Hirei

• ARMAZURI • dastapenak

Arimazuri plaza /
Loramendi, 6
ARRASATE
Tfnoa: 79 80 44



EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak
Legarre Pabilioia.
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11

GOZOKIAK • KAFEA



AKELARRE

• ETXEKO GOZOKIAK •

Tartak, pastel txikiak, pastelak, pastel bereziak,
gurinezko pastak, opiltxoak, ezkontza-tartak.

ENKARGUAK: 77 00 71 tfnoan.

Zarugalde, 54 ARRASATE

Maite Toledo, 25 urteko antzuolarra da, hiru urtetan zehar

Arrasate Presseko horoskopoa egin duena. Astero, astero musu truk egindako kolaborazioarekin oso lan ona egin du, baina hainbeste denbora pasa ondoren, uztea erabaki du.

— Nahas daitezke supersertizioa eta astrologia?

— Ez dakit, ez dut uste halako gauzak astrologiarekin zer ikusirik dutenik.

— Zuk zer egiten duzu?

— Astrologia. Ez dut asko esperimentatu, nik karta natalak edo horoskopoa egiten ditut bakarrik. Asteroko horoskopoa horretarako zeinu bakoitzeko aszendentea kalkulatu dut, baina benetan garrantzia daukana pertsonaren karta natala da.

— Nola egiten duzu asteroko horoskopoa, izarrei begiratzen diezu?


— Ez, horretarako teleskopioa behar da, nik efemeride liburu bat daukat eta horren arabera egiten dut.

— Eta horoskopoa edo karta natalak?

— Karta natala egiteko pertsonaren jaiotordua, eguna eta toki hartzen ditut eta horren arabera aszendentea kalkulatu dut. Alde batetik, pertsona zein eguzki-zeinutan jaio den bereizten dut, hau da, kanzer eguzki zeinua ala leo eguzki-zeinukoa, hauek markatuko dute pertsonaren nortasuna; eta bestetik, aszendentea kalkulatu dut eta honek adierazten du edo markatuko du karakterra. Karta natalen barruan kalkulatu dira bizi-moduaren atal ezberdinak, alde batetik, zeinuak daude gauzen zergatiak adierazten dituztenak; bestetik, planetak, zer eragin izango duten

Maite Toledo

Hiru urtez Arrasate Presseko igarle



zeinu horretan, adierazten dutenak; eta azkenik, etxeak izango dira ze ataletan emango den eragin hori.

— Zer zerikusi dute pertsonak eta planetak?

— Planetak eta zeinuak egunetik egunera posizio ezberdinean daude, pertsona bat jaiotzen denean, ordu, toki eta egunaren arabera, planetak eta zeinuak posizio konkretu baten egongo dira eta, horrek pertsonarengan eragina duela esaten dute.

— Zuk predizioak egiten dituzu. Gauzak zehaztu daitezke?

— Zehaztu zehaztu, ezin da egin, zeren beti ere, gure esku dago. Destinoa hor dago baina beti egongo da gure esku okerrago edo hobeto pasatzea.

— Zergatik hasi zinen honenkin?

— Ba, ez dakit, lankide batek Arrasate Presseko horoskopoa egitea eskaini zidan eta hortan hasi nintze-

nean, interesa sortzen hasi zitzaidan.

— Non ikasi duzu?

— Hasiara baten nire kontura hasi nintzen ikasten, liburuetatik eta horrela, baina iturri hori motz gelditu zitzaidan nik nuen interesa handia bait zen; harrezgero bi ikastaro egin ditut. Lehenengo ikastaroa Urnietan egin nuen eta ofologian ibiltzen den bat izan zen irakaslea, orduan berak astrologiari zentzu exoteriko bat eman zion. Intuizioa oso landuta zuenez, karta nataleki zentzu razional bat eman beharrean intuizioarekin jotzen zuen. Bigarren ikastaroko irakaslea, berriz, ezberdina da, astrologoa da baina bere espezialitatea psikologia da. Orduan, pertsonaren barruan sartzen da eta pertsonaren izaera aztertzen du, gutxi gora behera.

— Ze jende mota joaten da halako ikastaroetara?

— Lehenengo ikastaroan adibidez, ni nahiko galduta nengoen, asko landutako jendea zegoelako. Dena dela, oso espiritualistak izaten dira; nire iritziz, beste mundu baten bizi den jendea da.

— Baten batek esan dizu horoskopoa azertatzen duzun edo ez?

— Ez dakit, baina badakit jende asko aludiduta sentitzen dela nik egindako horoskoporekin, behar bada ezagutzen ditudalako izango da.

— Zeure buruarentzat egiten duzu predikziorik?

— Ez, nahiago dut gauzak datozen moduan hartzea. Nahiz eta ondo egon jakitea zer gertatu behar den; batez ere, zerbait txarra gertatu behar denean, nolabait ebitatzeko. Baina alde zurretik zer gertatu behar den jakiteak ez nau gehiegi konbentzitzen.

“Destinoa hor dago baina gure esku dago okerrago edo hobeto pasatzea”

Gutxitu fisikoak sentsibiltate ezaren aurrean

Mirari Korta arrasatearrak, traba arkitektonikoak ikertzen ari zela, Donostian esperimentu kurioso bat egin zuen behin: kaleko lau-bost pertsona hartu zituen, gurpildun aulkietan jarri erazi eta hiriko puntu jakin batzuetara joateko agindua eman. Abiatu ziren, baina ez ziren gauza izan aulkitik zutitu gabe esandako tokira iristeko. Hortaz, argi gelditu zen gutxitu fisikoek ez dutela Donostian ibiltzeko erraztasun handirik.

Eta Arrasaten?

Donostian burututako esperimentuaren antzerakoren bat hemen bertan eginez gero, zer gertatuko litzateke? bada, zerbait tokitara joateko, behintzat, norbaiten laguntza beharrezkoa izango litzatekeela, hori argi dago. Era guztietako gutxitu fisikoek, ez dituzte gainontzekook ditugun eskubide berberak izan behar? Legeak argi dio, erantzuna baiezkoa da. Hortaz, zergatik ez dituzte errealitatean? Gorra zergatik ez dute telebista ikustetik? Gurpildun aulkietan dabilzanak zergatik ezin dira liburutegi edo tabernetara inoren laguntza barik sartu? Makuluekin ibiltzera behartuta daudenek zergatik aurkitzen dituzte eskailerak toki askotan? Zergatik itsuek ezin

dute kalea arrisku barik zeharkatu? Zergatik... galderok ugari liriteke eta banan banan galdetuz joanez gero, gutxitu bakoitzak bereak izango litzuzke. Aurki daitekeen erantzun orokor eta bateratu bakarra, sentsibiltate falta izugarria izango litzateke, Instituzioetatik hasi eta ekimen pribatuetara.

Ekimen instituzionalak

Beraz, batzuk eta besteok ditugun eskubideak berdinak izanda, zeren zain ote daude Instituzioak legeak bete arazteko? Urrutikoak alde batera utzi eta bertako Instituzio nagusiari begirada eman behar, Udalarari noski.

Udalaren kasuan, egingadako azken lanen arabera, orokorrean zerbait esatea ez litzateke erraza. Atalka aztertuta behar, beraz. Espaloiei dagokienez, oraindik konpondu gabekoak badauden arren eta kontuan hartuta herri baten itxura eta egitura ezin dela egun batetik bestera aldatu, azken urteetan aurreakada nabaria egin da, herriko espaloie gehienetan, mugitzeko arazoak dituztenentzat ranpak jarri dira eta. Alde horretatik dauden hut-suneak betetzea komenigarria izango litzateke eta gainera espaloie labankorrek, oraindik asko direnez, aldatzen joatea.


Eskailerena arazo latza da Arrasaten, konponbide zailakoa, berez, herri aldapatua dela kontuan hartuta. Herriko auzo askotara joateko, eskailerak edo aldapak igotzea ezinbestekoa da eta gutxitu fisikoentzat arazo nekagarria edo beste norbaiten laguntza eskatzen duena. Alde horretatik, bakarrik legeak dioena betetzearren eta ez arazoa konpontzeagatik, ranpatxoak jarri dira eskailera



askotan; baina izugarritzko aldapa dutenez ez dute inolako funtzionaltasunik. Gainera, askok ez dute heldulekurik ere.

Aparkalekuetan ez da inolako irtenbiderik eman eta ez dirudi, Udal mailan, gutxientzat aparkaleku bereziak egiterik inoiz planteatu ere egin denik. Aparkalekuen arloan, orain arte, ezer egin ez den moduan semaforo akustiko bakar bat ez dago Arrasaten, eta oraingoz jartzeko proiektu jakinik ere ez. Zentzu berean, komun publikoak aipatu beharko lirarteke.

Kaleko kontuak utzi eta eraikuntza publikoetarako Udalak dituen joera zehatzen berri ematea ez da erraza: Udaletxean bertan, igogailua jarri dute baina eskaileretako lehen zatiak ez du heldulekurik. Musakolako



Askotan ez da samurra izaten gurpildun aulkiaz bakarrik moldatzea

kiroldegian, bere garaian ez zuten gutxientzat ezer jarri; orain, ordea berritze eta egokitze lanetan dabilza. Une berean, Iturripen kirol-

degi berria egin da eta gutxiak ezin dira eserlekue-tara joan. Iturbide Egoitza gutxientzat egokitu behar dute, baina hor dago, esate-

rako, Monterron ere. Legea hor dagoen arren, gutxituen arazokiko ez da sentsibilitate garbirik nabarmentzen. Ondorioz, lan berriak egiteko orduan, ez da arazo horrekiko erizpide argirik ikusten.

Erreinbidikapen batzuk

- Instituzioek indarrean jar ditzatela urbanismo mailan dauden legeak.
- Espaloi ez-labankorrek eta ranpadunak egin.
- Aparkaleku bereziak egin eta jendeak errespetatzea.
- Egiten diren ranpak, oso aldapatsuak ez izatea.
- Gorrentzat tinbre eta telefono berezien erabilpena heda dadila.
- Entzun ezin dutenentzat telebista subtitulatua izan dadila, eta bertakoa denez, honetan ATBk badu zereginik.
- Taberna eta dendak insonorizatzen behartzen diren bezala, gutxituei erraztasunak emateko bideak jartzera behar ditzatela.
- Gutxitua lan-mundura integratu dadila, eta ez lantegi-ghettoetara bidali.
- Instituzioek eman behar dituzte lehen urratsak, gainontzeko jendeak ondorengoak eman ditzan.

Gainontzekoak, zer?

Instituzioen sentsibilitatea tantaka ikusten bada ere, kaleko jendearen artekoa lehorra da, sentsibilitatearen basamortua beraz. Kaletik buelta bat ematea besterik ez dago: non ikusten dira taberna edo denda batean sartzeko zoru lau edo ranpadunak? Ia inon ere ez, gizarte honetan, estetikari batzuren ezintasunari baino garrantzi gehiago ematen zaio eta. Bada aldatzen hasteko garaia.


**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94





Arrasateko pilotariak Euskal Ligan

Azken orduko aldaketa batzueri esker, arrasateko pilotari gazteek hasi berria den Euskal Ligan jokatzeko aukera izango dute. Jakina denez, aipatutako Euskal Liga herrialde bakoitzeko hiru lehen taldeek jokatzeko dute. Saikapen ihardunaldietan arrasatearrek ez zuten hiru lehenengo artean sartzerik izan, baina azken orduan Araba eta Gipuzkoako talde batzuk Euskal Liga honetan parterik ez hartzea erabaki dutenez, arrasatearrentzat izan da aukera. Horri esker, Korta-Zuazubiskar bikoteak Euskal Liga honen bigarren edizioan jokatu du.




Emakumezkoen futbol-taldea gorantz

Atxabaltar eta arrasatearren arteko derbian arrasatearrek izan genituen garaile joan den asteke partiduan. 2 eta 1 nagusitu ziren, partido borrokatu baten ondoren. Mondragoetarren hurrengo partidua igande honetan izango da, Zumaian. Aurrez ikusita, arrasatearrek irabazi beharko lukete partido hori eta gainera garrantzitsua izango litzateke irabaztea, hurrengo astean Eibar taldea etorriko da eta Atxabalpera, kategoriako gogorrenetarikoa.

Hurrengo partidua

Joan den astean ere, ezinezkoa izan zen arrasatearrentzat jokoan jarri ziren bi puntuak eskuratzea. Mondrak ez zuen gaizki jokatu, baina bermiotarren taldea ez da makala eta gauza izan zen berdinke-ta lortzeko. Bi taldeen jokoa ona izan zenez, igarotako partido hori alde batera utzi eta asteburu honetakoa aipatu behar.



Mondragoetarren Mungiarainoko bidea egin beharko dute, hango taldearen aurka jokatzeko. Aurreko urteetan ederki asko ibili izan dira mungiatarrak hirugarren maila honetan, baina aurtan ez dabilta bat ere fin.

Bizkaitarren egoera txarraz aprobetxatu nahian, mondragoetarrak bi punturen bila joango dira. Izan ere, favoritoak beraiek dira eta gainera oraindik promozio postuak ez daude oso urruti arrasatearrentzat. Saikapenari begirada bat emanez gero, saikapeneko laugarrena bakarrik lau puntuetara dagoela ikus daiteke. Hori kon-tuan hartuta, ez da arraroa arrasatearren entrenatzailearen helburu bakarra bi puntuekin bueltatzea izatea. Ea bada egia den eta Mondra berriro ere garaipen bide-tik abiatzen den! oraindik gutzia ez dago galduta.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

ALEX

SAAVEDRA

Gaztetasunaren
kalitatea

PODIUMA



Alex Saavedra eta bere anaia Gabi Arrasateko azken atleta generaziokoak dira, oraindik, aspalditik dabiltzan arren, emateko asko duen generaziokoak. Alex Saavedrak 800 metrotako proban hartzen du parte orain, juniorren mailan eta duela gutxi Arrasateko errekorra egitea lortu zuen, 1.57.47 minutuetan ezarriz.

"Beno, marka bezala ez dago txarto, kontuan hartu behar delako oraintxe hasi berri naizela juniorren lasterketetan parte hartzen". Gerora begira, 1.500 metrotako proban ikusten du burua, atletismoko garrantzitsuenetarikoa hain zuzen.

Hamasei urte ditu Alex Saavedrak eta hamar-hamaika izango zituen atletismoa egiten hasi zenean. Hemengo teknikoek dioten ez, izugarriko kalitatea omen dauka baina nagi samarra ote den ere aipatzen dute. "Ez da egia, batzutan ez naiz entrenatzera joaten eta horregatik eman didate eman didaten fama. Batzutan ezin izaten naiz joan eta beste batzutan ez dut joaterik nahi izaten, baina normala da hori". Nagi fama alde batera, Alex Saavedrak lasterketa politak egiten ditu eta baita postu onak lortu ere. "Normalean lasterketetan

errendimendu ona izaten dudala esan daiteke, baina horrek ez du ezer esan nahi. Orain ondo nabil eta Gipuzkoa mailan ez naiz bat ere txarra, baina ikusteko dago zer egin ahal izango dudan. Gero beherakadaren bat izan dezaket, zailena progresio bat izatea da eta. Hala ere, ez zait luzarora begiratzea gustatzen, nahiago dut egunerokoa biziitzea".

Eguneroko horretan, Alexek bere anaia bixkia Gabiren laguntza izan du atletismoan hasi zenetik, biak bait dira korrikalariak. Castro anai portugaldarren antzera, bolada desberdinak izaten dituzte. "Lehen anaiak irabazten zidan lasterketa gehienetan, azken aldean, ordea, gauzak aldatu egin dira eta normalean neuk irabazten diot. Dena dela ez diogu elkarri diferentzia handiegirik ateratzen eta lanak ematen dizkiogu elkarri".

◆ Atletak ondo

Euskadiko Txapelketaren barne, Arrasateko atletek urrezko domina bat eta brontzezko beste bat lortu zituzten. 400 metrotako proban Josean Gayk ez zuen eragozpenik izan lehen postua lortzeko, baina marka kaskarra egin zuen. Aitor Arnaiz izan zen domina lortu zuen beste korrikalaria, 200 metrotan hirugarren postuan sartu bait zen. Aitorrek egindako markak, 22 segundu eta 55 ehunenetakoa, datorren hilean Oviedon burutuko den estatuko txapelketan parte hartzeko eskubidea ematen dio.

◆ Gaztetxoak ere kirolari

Ez zuten aparteko txapelketarik ezta aparteko markarik ere egin, baina txapelketa handiena balitz bezala, San Frantzisko Xabier, San Viator, La Merced eta Erguin ikastetxeetako 65 haur gustora asko ibili ziren Iturripen kirola egiten. Altuera jauzian, luzeera jauzian eta pisu jaurtiketean aritu ziren guztiak.

◆ Squash txapelketa

Gure artean tradizio handirik ez duen kirola izanda ere, 20 partaide bildu ziren joan den astean kiroldegian burututako Squash txapelketan. Hogei horietatik finalera Eugenio Agirrezabal eta J. A. Viedma iritsi ziren, Agirrezabalek 3 eta 0 irabazi zuen. Partaideen kopurua ikusirik, seguruen laster antolatuko dute beste txapelketaren bat.

◆ Centraljet estuasunetan

Azkenaren aurka eta justu-justu irabazi zuen Centraljet-ek joan den asteburuan. Datorren astean, berriro ere kanpoan jokatu dute arrasatearrek Xerox Getxo taldearen aurka, momentuz sailkapenean laugarren postuan dagoen taldearen aurka. Garaipena, nola ez, ezinbestekoa.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneriaUribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99

PAZI-OLA SA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispé kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Danba eta Zarama Bergaran

San Juan Bosco jaia dela eta, datorren ostiralean, hilak 31 Bergarako frontoian *Zarama* eta *Danba* taldeekin kontzertua izango da gaueko 10.30etatik aurrera.

Rock kontzertua Institutuko eta Lanbide Eskolako ikasleek antolatu dute, jaia egin eta urtero egiten den ikasketa-bidairako dirua ateratu asmoz.

Kontzertu hori dela eta, Arrasate Pressek lehiaketa txikitxo bat antolatu du, kontzertua dohainik ikusi nahi luketen bost irakurlek horretarako aukera izan dezaten. Bost sarrera horiek eskuratzeko, alboko koadroan dagoen galderari



erantzuna eman behar zaio, moztu eta ahalik eta azkarren Arrasate Presseko erre-dakziora ekarri. Zozketa asteazkenean egingo dugu, eta egunean bertan irabazleei deituko diegu, sarrerak jaso ditzaten. Rock zaleok, bada-kizue, aprobeztatu aukera.



✂ — **5** —
Sarreraren zozketa!!

Galdera: Zein da *Danba*ren edo *Zarama*ren azken diskoaren izena?

Erantzuna:

Izena:

Tfnoa:

EKARRI TXARTELA:
ARRASATE PRESS
Azoka kalea, 1
ARRASATE

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18


Hotza eta osasuna

Ikusten denez, azken bolada honetan "antizikloia" gustura dago gure gainean; izan ere, orain arte daramagun negualdian ez da batere mugitu.

Jakina denez, antizikloiak hotza dakar garai honetan, benetako hotza; eta honek gizakiaren gorputz edo organismoan hainbat eratako eragina du.

Neguan ohizkoa izaten da *Raynaud-en gaitza* agertzea, eta gaitz honek hotzarekiko sentiberatasun handia sortzen du, atzamarretako arterietan, erpuruan ezik, espasmoak eraginez. Espasmoaren ondorioz, atzamarrak zuri, zurbil eta hoztuta geratzen dira, batzuetan kolore urdina hartzen dutelarik.

Badira pertsona batzuk goizean goiz eskuak ur hoztutan sartzea nahiko izaten dutenak espasmoa izateko, eta gero berdin jarraitzen dute kanpoko tenperatura hotzaz.



Gaitz hau maiztasun handiagoz ugalkortasunadinean dauden emakumeengan agertzen da, eta ar-

duratzekoa izatera heldu daiteke.

Raynauden sindromea ere berdina da; alegia, sintoma-

tologia berbera du, beste zergati bat izan arren. Izan ere, hau traumatismo errepikatuen ondorio bezala agertzen da: mailu pneumatikoak, tresna dardarkariak, leuntzeko makinak, torlojogailuak, idazmakinak... erabiltzen dituztenengan, hain zuzen. Dardarak edo bibrazioak denbora luzean aritzen direnean atzamarren gainean, hauen arterietan aldaketak agertzen dira.

Tratamendua ez da bate-
re erraza, eta, artile edo ko-
toizko guanteak erabiliz, ho-
tza ekidin edo ebitatzea izango litzateke onena.

Batzuetan, botika espezifikokoak ere ematen dira, basodilatatzailerak adibidez, baina arrakasta eskasa izaten dute.

Kasu arinetan, sintomak neguan bakarrik agertzen dira, baina prozesua aurrera doanean eta eboluzioak urteak daramatzanean, udaberrian nahiz neguan ere "atzamar zuriak" agertzen dira.

EUKENI & ARANTXA



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

Neskak, gazteak... eta bertsolariak

Saioa, Arantzazu, Agurtzane, Amaia, Leire, Ainhoa eta Maider dira Leintzko bertso eskolako zazpi partaideak. 13 eta 17 urte bitarteko gaztetxoak dira, guztiak neskak eta bertsolaritzaren saltsa horretan sartu eta gustora murgilduta daudenak. Bertsoeskoletatik bertsolariak eta bertsozaleak sortzen direla esaten dute, baina, "gu oraindik ez gara bertsolari" entzun daiteke neska talde honen ahotan, apaltasunez edo. Hala ere, zaletasun horretan ari dira eta ahal duten guztitan lehiaketetan ez ezik, komunikabideetan ere argitaratzen dituzte euren lanak, Arrasate Presseko Bertsotan atala horren lekuko.

Ostiral iluntzero, batzutan AEDn eta beste batzuetan Aretxabaletako Beinken, lagunuen arri-muan elkartzen dira erdi



broman, erdi serio, eta konpromezu serioren bat dutenean, baita sariago ere. Datorren hilean Apotzako urteroko zita, adibidez. Guztiak elkarrekin orain pare bat urte hasiko ziren, baina batzuk aurretik ere baziarduten euren saiotxoak egiten, Almenen hasita. Orain, gainera, gaztetxoagoengan ere bertsozaletasuna piztu nahian edo, Alme-

neko ikasleei irakasten ere hasi dira Goikolearen lagun.

Denak neskak izate horrek norbaiti sor diezaioken kezka argitze aldera, neskek umetan ibili eta gero zergatik erretiratzaren diren ez omen dute ulertzen, ausarta izan beharra dagoela aitortu arren, taldean ibiltzearen eta helduagoen babesak aurrrera egiteko gogo ziuerra

dutela ikustarazten ei die eta.

Egiten dutena egiten ondo pasatzen dutelako eta horretarako irrika duenaren sentimentua ulertzen dutelako, etorri nahi duten gazte guztientzat atea irekita ditzutela diote. "Ez dugu inor jaten. Neskak nahiz mutilak, lasai etor daitezela. Tira, mutilak babilira, kasi-kasik..."

LURRINGEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias, 28-B ARRASATE Tfnoa: 79 08 70

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Cruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24

Jon Andueza

Amets handi bat bete duen mutila



askotan boligrafoa hartu eta idazten hasten naiz. Batzutan bota egiten dut idatzitakoa eta hau, berriz, ona iruditu zitzaidan denbora askoren ondoren irakurri nuenean. Egoera emozional berean nengoen baten jarraitu eta horrela bukatu nuen.

- Gai aldetik?
- Oraingoz muga

"Tristura izaten da idaztera bultzatzen nauena"

izugarriak ditut. Beti gauza antzekoak idazten ditut: tristura, zeloak, maitasuna, gorrotoa... dena nahastuta. Normalean amaiera tristea duten ipuinak izaten dira, era horretako osagarriekin.

— Eta irakurri zer egiten duzu?

— Irakurri oso gutxi egiten dut, orain piska bat gehiago, eta irakurtzen dudaren artean denetik dago, baina ez daukat eskema finkorik eta ez naiz idazle baten azken obraren bila joaten den horietakoa. Parean tokatzen dena irakurtzen dut, norbaiten gomendatutakoa eta horrela. Baina ez daukat irakurtzeko ohitura larregirik.

— Zela definituko zenuke zure estiloa?

— Gerardo Markuletak behin esan zuen nire estiloa *Flash narratiboa* dela, eta grazia egin zidan. Arina, laburra da. Batzuk esaten duten bezala, nire ustez euskaraz muga batzuk daude, batzuk igoal euskaraz asko dakite baina gehienok muga handiak ditugu eta horregatik euskara erraztera jo behar da, jendea irakurtzera erakartzeko.

— Donostia Hiria sariketa irabazi, baina Debara ere bidali zenuen ipuina.

— Donostia Hiria beti izan da ametsa niretzat, baina orain arte ez dut lan borobilik egin. Hori eginda neukan eta neure buruarentzat erronka bat izan da, noraino irits naitekeen ikusteko. Debako epaia lehenago etorri zen eta ez zidaten inolako saririk eman. Debakoa errazagoa iruditzen zitzaidan eta frustrazioa izan zen han saririk ez ateratzea.

— Zer eritzi duzu lehiaketa horietako epaileei buruz?

— Beno, lehiaketa bi hauekin gertatutakoaren ondoren, argi dago epaimahaiko hiru pertsonak nolako indarra duten eta lan bera bi lekutan, baten irabazle eta bestean saririk gabe gertatzeak zerbait esan nahi du, gusto kontua da dena eta neurri baten kritikagarria da hori. Debako emaitzak desanimatu egin ninduen erabat eta Donostiakoak, berriz, bapatean idazle sentiarazi.

— Zerk motibatzen zaitu idaztera?

— Tristurak. Kalera irtetzeko gogorik ez dudan

◆ Kartel lehiaketa

Haratuzteko kartel lehiaketan parte hartuko duten guztiak oraindik kartelak entregatzeko aukera izango dute urtarrilak 31 azken eguna bait da. Teknika librea izango da eta kartelen neurria 50x70koak derrigorrez izan beharko dira. Saria 50.000 PTAkoa izango da.

◆ Goikobaluren ekitaldia


Datorren astean Meatze-rreka auzoan San Valerio jaiak burutuko dira. Jai-egitarauaren barruan, besteak beste, Goikobalu abesbatza-aren ekitaldia izango da, otsailaren 2an eguerdiko 12.30ak aldera. Goikobaluko kanta entzun nahi dituenak badaki, beraz, nora joan, dagoeneko entsaioetan hasita izango dira eta.



◆ Toponimia ezagutzeko irteera

Igande honetan, hilak 26, Murrukixokoek mendi-irteera antolatu du, Aretxabaleta inguruko izenak ezagutu asmoz. Irteera, goizeko 9etan izango da, Aretxabaleta Partenoian eta buelta eguerdi inguruan. Beraz, toponimiaz zerbait jakin nahi dutenek badakite nora jo.

Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Bildegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

ARRASATE PRESS



77 05 65

Aste gazte

"Egun batean, oraingo gaztea joko hastera dihoan xake jokalaria bezala sentitzen da; aukera guztiak esku dauzkala iruditzen zaio, eta begiak itxi eta plazer ematen dio zenbat askatasun duen pentsatzeak".

OBABAKOAK



Bekak

• Ikerkuntza-hastapenerako bekak. Fakultate edo goi mailako eskola tekniko bateko azkenengo ikasturtean matrikulaturik daudenak, aurreko ikasturte osoa gaindituta badute. Dirulaguntza: hilerko 24.000 PTA. Epea: otsailak 2.

Humanistika, Giza-Zientziak, Artisautza edo antzerako beste arloetan ikasketak Hungrian sakontzeko bekak. Eskatzaileak: hungariera, frantsesa edo ingelesa menperatzen duten goi

mailako tituludunak. Iraupena: 3-9 hilabete. Dirulaguntza: matrikula, hileko 6.000 forinto, alojamendua, bidai-gastuak, e. a. Epea: otsailak 7.

• 1992-93 ikasturterako "Amity" bekak. Eskatzaileak: ingeles maila ona duten 20-30 urte bitarteko lizentziatu eta unibertsitate-ikasleak. Lehenasuna izango duten karrerak: Ingeles edo Hispaniar Filologia, Pedagogia edo Magisteritza. Epea: otsailak 8.

• 1992ko udan Frantzia frantsesa ikasteko bekak. Baldintzak: 19 urtetik behera izatea, BBB edo REM-eko 2. edo 3. ikasturtean matrikulaturik egotea edo LHII 1. edo 2. ean, 91-92 ikasturtean bekario izatea, aurreko ikasturtea osorik gaindituta izatea, frantses ikasgaietan "oso ongi" kalifikazioarekin. Dirulaguntza: 172.000 PTA. Epea: otsailak 17.

Gazte-taldeak

• 1992 urterako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago. Urtero bezala, aurreko urteko memoria eta aurtengo egitaraua aurkeztu behar dira.

Lehiaketak

• Arrasateko 1992ko Haratuzteak kartel-lehiaketa. Neurriak: 50x70. Teknika libre. Saria: 50.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: urtarrilak 31.

• "Jesus y Adan" IV. Argazki-Lehiaketa. 30 urtetik beherakoei zuzendua. Zuribeltzean edo koloretan. Teknika eta gai libreak. Sariak: 30.000, 25.000 eta 20.000 PTA. Lanak aurkezteko azken eguna: otsailak 10.

• Eibarko 1992ko Aratosteetako kartel-lehiaketa. Neurriak: 50x70. Gai eta ko-

lore libreak. Sariak: 60.000, 15.000 PTAko akzesita eta sari berezi bat 14 urte edo gutxiagoko onenari. Lanak aurkezteko epea: otsailak 14.

• "Aguasol" poesia-lehiaketa. Gazteleraz. Gai libre. Obrek 42-100 lerro bitartekoak izan behar dute. Saria: 50.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: otsailak 15.

• "Caja Jaen" eskulan-gintza-saria. Sailak: a) keramika artistiko eta sortzailea, b) larrua eta c) tapiz eta ehungintza. Sariak: a) 250.000 eta 100.000, b) 250.000 eta c) 250.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: otsailak 3tik 22ra arte.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



ERROTA-GAIN Aluminioak

Aluminiozko leihoak
(haustura termikoa)
eta PVC

Altos Hornos-Azkarruntz auzoa BERGARA Tfnoa: 76 32 40 Faxa: 76 32 41

ETXEBIZITZAK

- **Santa Teresa 6, 3.** ezkerreko etxebizitza salgai dago bai atarte berebean dagoen bezero oneko ileapaindegi lokala ere. Tfnoa: 79 03 64.
- **Erguinen etxebizitza salgai.** Amueblatua, gas naturala, hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, bi terraza, eguzkitsua, bista ederrekoa eta garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- **Logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Eskoritzan etxebizitza alokatuko genuke** lehenbailehen. Tfnoa: 73 04 20. Amaia.
- **Etxebizitza salgai Zigarrolan.** 4 logela, egongela-jangela, sukaldea, bainu gela, guztiz amueblatua. Dei egin 79 18 34 zenbakira.

LANA

- **Magisteritza Eskolako ikasle bat, OHOKo klase partikularrak** emateko prest legoke. Dei egin 79 74 03 tfnora.
- **Esperientziadun neskak etxeko lanak** egin edo umeak nahiz pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 15 35.
- **REMedo BT 1eko klase partikularrak** emateko prest nago. Dei egin 79 99 82 tfnora. Iñaki.
- **Ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar dut** Gasteizen. Interesatuak dei egin 945 - 28 67 44 edo 70 03 80 tfoetara.
- **Etxeko lanak egiteko prest** esperientziadun emakumea. Dei egin 79 84 12 telefoora.
- **O.H.O.ko 7. mailako matematikak eta hizkuntzako klase partikularrak** behar dira Aretxabaletan. Asteaz hiru ordu, astelehen, astearte eta ostegunetan 6.30etatik 7.30etara. 79 41 72 telefonoan 7.30etatik aurrera. Mari Jose.

- **Neskak gaixoak zaintzeko prest,** etxean nahiz ospitalean: 79 69 41.
- **Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest** neska gaztea: 79 99 17.
- **Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest.** Tfnoa: 77 05 47.
- **Pertsona bat behar da REM 1.** kurtsoko klase partikularrak emateko. Tfnoa: 79 68 04. Xabier.
- **Esperientzia duen neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko.** Tfnoa: 79 72 92. Elena.
- **Emakume euskalduna behar dugu** etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Dei egin 7etatik aurrera 77 05 22 tfnora.


SALEROSKETAK

- **80 zm-ko somier eta koltxoi berri-berriak salgai.** Tfnoa: 79 62 80. Rosa.
- **Autorako erremolkea salgai.** Tfnoa: 76 45 12.
- **Eskupeta paraleloa salgai, oso egoera onean.** Tfnoa: 76 45 12.
- **Birkientzat kotxe-aulkia salgai, oso egoera onean dago.** Dei egin 10etatik aurrera 94-658 21 97 tfnora. 10etatik aurrera.
- **GAC First mobilette salgai.** Dei egin 79 45 74 tfnora. Aitor.
- **la berria dagoen arko-i-zozkailua saltzen da** 65.000 PTAtan. Neurriak 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbat ere bitartean 94 - 682 04 83 tfnora.
- **Talbot Horizon autoa salgai.** SS-N matrikuladuna. Motorea errektifikatua eta errebisioa eta aseguru abuztuan eginak ditu; beraz, aukera ezin hobea. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. asteartetik larunbatera bitartean goizeko 9etatik 12.30etara.

- **Orbea markako lasterketa-bizikleta berri berria salgai.** 25.000 PTA Tfnoa: 79 40 44.
- **Txapa kalefaktorea salgai,** egoera onean, baita gas naturalarendako ur berogailua ere. Tfnoa: 79 59 72.
- **Colnago markako mountain bike-a saltzen da.** Atzekaldean kubiarta berria eta grupo osoa Shimano markakoa ditu. Oso egoera onean dago. Prezioa 50.000 PTA. Dei egin gaueko 8etatik 10etara 79 08 48 tfnora.
- **R5-a salgai 100.000 PTAtan.** Dei egin 79 35 40 tfnora.
- **Hiru mendiko bizikleta salgai.** Mendiz, Otero eta Orbea markakoak. Tfnoa: 77 04 21.
- **Collie txakurkumeak ditut salgai.** Tfnoa: 76 64 83.

DENETARIK

- **Eskumuturreko erlojua galdu dut.** Nire lehenengo jaunhartzekoa da. Dei egin 79 29 39 tfnora. arratsaldeko 7.30etatik aurrera.
- **Bilbora eramateko prest dagoenari:** mesedez, deitu berriro, zure telefono-zenbakia gaizki daukat eta. Tfnoa: 79 22 63.
- **Portugaleteko Aritz Gonzalezi bere urtebetetzean zorionak** Arrasateko senide guztien partez.
- **Larunbatean San Frantzisko inguruan,** harribitxi landuz osatutako urrezko itxiduradun bi bueltako koilarra galdu nuen. Mesedez ekarri Arrasate Press-era.
- **Gabon zaharrear urrezko eskuturrekoa galdu zitzaidan.** Norbaitek aurkitu balu, eskertuko nioke 79 53 53 tfnora. deitzea.
- **3 txakurkume ditut erregalatzeko,** oso politik dira. Dei egin 79 66 45 tfnora.
- **Zorionak Susana Bragadori.** Bere anai-arreba guztiek koinatuek, aitatzok eta amatxok.



**ARRASATEN
HILDAKOAK**

Isabel Goirizelaia Sagasti,
abenduaren 17an. 92 urte.

Luis Florencio Ibañez Aspe,
abenduaren 19an. 86 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE


Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Arantxa Imaz

(Joxean Erlojudendakoa)

- **Eraztuna ala eskumuturrekoa?** Eraztuna.
- **Prakak ala gonak?** Niretzat gonak.
- **Txanpaina ala Errioxako ardoa?** Ardoa.
- **Erlojuak konpontzea ala bitxiak konpontzea?** Erlojuak konpontzea nire lana da.
- **Perfumea ala kolonia?** Kolonia, usain freskoa gustatzen zait. Perfumea oso enpalagosoia izaten da.
- **Diamanteak ala esmeraldak?** Biak, nik brilanteak ditut baina esmeraldak ere asko gustatzen zaizkit.
- **Ohizko bezeroak ala noizbehinkakoak?** Denak, negozio honetara ez da eta egunero etortzen. Gero beste gauza bat da ezagutzen duzun jendearekin gustorago egotea.
- **Bisuteria ona ala urre merkea?** Ez bata eta ez bestea. Bisuteriarekin diru asko gastatzen da eta urre merkeak ez dauka balorerik.
- **Gizonezkoak belarritakoekin ala barik?** Hainbeste zulo egin dut, ohitu egin naiz eta berdin zait belarritakoekin edo belarritako barik.
- **Ezpainak pintatuta ala pintatu gabe?** Pintatuta.
- **Kataia zilarrezkoa ala urrezkoa?** Urrezkoa, zilarra asko zikintzen da.
- **Edurra ala euria?** Biak, unearen arabera.
- **Lapurrak sartuz gero aurre egin ala besoak jaso?** Beraiekin hitzegingo nuke, ez dut uste sustatuko nintzateknik.
- **Begi urdinak ala beltzak?** Kolorea baino gehiago, begiek duten espresioa edo bizitasuna da gustatzen zaidana.
- **Ilea tintatuta ala tintatu gabe?** Hobeto sentitzen bada tintatuta, ba orduan tintatuta.
- **Betaurrekoak ala lentilak?** Betaurrekoekin, praktikoagoak dira.
- **Erlojua, digitala ala orrazduna?** Orrazduna.



Bertsotan

Silikona

1
Azkenaldian denon ahotan dabil *silikona* hitza emakumeak bular haundiak eduki nahian dabilta nahiz fisikoki hasera baten ederra izan emaitza gerora horrek bular aldea sortzen du minbizi gaitza edertu nahian alperrik galtzen utziz norbere bititza.

2
Nabarmena da benetan ere silikonan gaitasuna alde batetik edertasuna bestetik gaixotasuna aukeraketa horretan datza zor daiteken zailtasuna nahiz garrantzitsu izan benetan norbere liraintasuna bitiztan gauza denen gainetik ez al dago osasuna?

LEIRE BASAURI



**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



1

951 edo 52 urtea zen. Santa Agedako jaietan eguerdiera arte lan egiten ei zen, eta arratsaldean jai hartu. Horrela joan

zen argazkiko kuadrila ere, eta Aretxabaletako Antonio delako batek atera zien argazkia Gasteiztik etorrita.

Ezkerretik hasita zutik, Angel Dominguez "Toni", Pako Mentxaka "Txurrero", Antonio Tejada geroago Gasteizera bizi izatera joan zena, Pedro Gonzalez "Pepi-

to" eta Karmelo Amozarrain.


Behean makurtuta Jose Mari Fernandez, Julio Marañon "Azurra", Juan Mari Roa, Luis Mari Mora, Fernando Uranga "Kirru", Jose Luis Arriaran "Fululu" eta Fernando, galdetu dugun artean inork ere ez zekien azken horren abizenak.

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65

Pando



**PINTURAK eta
PAPERETAPENAK**
Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39


ARGI PLASTIC. C. B.

**PVC eta aluminiozko
leihogintza**

Berria Arrasaten! Diseinu berriak!

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoak: 77 02 40 / 77 11 30

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Meatz Erreka auzoko baserria
8. Kanpo
9. Semearen semea
10. Maindire
12. Ohi
13. Beharra
14. Zoro
15. Garai
16. San Adrian erdian
17. Tantaloa
18. Emakume izena
20. Kontaktuak

Bertikalak

1. Gatzatu
2. Otarreak
3. Ea!
4. Burdina lortzeko tokia
5. Errepikatuz lelo
6. Sorterria
7. Arduragabea
11. (Ald.) Txarra ez dena
14. Txurrut egin
16. Garau
18. (Ald.) Italiako ibaia
19. Nor pluraleak



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Sorginen madarikazioa

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: urtarrilak 25, larunbata

Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





Erreportaiak

Asteartea, 9.15

Tunantes del Norte, Arrasateko antzerki taldea. Azken boladan lokala ere daukate, eta burubelarri ari omen dira euren hurrengo obra lantzen. Datorren asteartean, Erreportaiak saioan, taldeari buruzko lan zabala izango duzue ikusgai.

Bestetik, eta saio berean, atzeratuena GUREAK tailerrari buruz ere luze jardungo dugu.

Ez gero zitara hutsik egin!

Telebegi

Azken boladan, Euskal herriko zenbait mediotatik, idatziak kasu honetan, hau da prentsatik, nolabaiteko kruzada sakratua zabaldu da ETBren aurka. Ni ez naiz orain eta hemen 2 euskal kanal publikoren beharrik badagoen ala ez aztertzeraz. Nere ustez, aipatutako kruzada hori ez doa zentzu horretan bideratua eta.

ETBren aurka bultzatu duten kanpaina horrek telebista publikoaren beharra bera zalantzan jartzea du helburutzat eta ni behintzat ez naiz hortik pasako.

Telebista publikoa beharrezkoa da, ezinbestekoa. Eta, are gehiago, oraingoa baino askosaz publikoagoa gainera. Kontuz, ez naiz telebista gubernamentalaren beharraz ari, badago eta izaera publiko eta gubernamentalaren arteko diferentziarik.

Hemen, soberan dauden kate bakarrak pribatuak dira. Horiek desagertarazi, horiek jarri zalantzan eta publikoak publikoago izatea bultzatu. Baina noski, merkatu librean omen gaude eta horri atxiki behar.

Kurioso da, dena den, telebisten izaera publiko hori zalantzan jartzen dituzten medioek (El correo....DV..), kanal pribatuaren interes ekonomiko eta ideologikoak dituztela. Kurioso eta susmagarria.

Gaur ETB ren izaera jarriko dute zalantzan, bihar edo etzi herri komunikabideen (Aldizkari, irriti, telebista) esistentzia bera.

Hau gerra da, gerra ekonomiko eta ideologikoa. Veni, Vidi, Vinci.

ANDONI URZELAI

Mondra-Gol

Aste honetan:
Mungia-Mondra

Igandean
9.15etan

ATBk

Asteburutarako
kazetariak behar ditu.
Medio honetan lan
egiteko gogorik
baduzu, **deitu!**

Txatxaran

Itziar Bartolome,
idazle gaztea

Asteazkenean
9.15etan

Programazioa

26

IGANDEA

9.15etan, *Mondragol*. Mungia-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena. Jon Andueza eta Jose Luis Ezkurraren eskutik.

27

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko kirol-mundua-
ren errepasoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uri-
besalgorekin.

28

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*.
Egunean zehar jasotakoak.
9.15. *Erreportaiak*. Aste hone-
tan, *Tunantes del Norte* an-
tzerki taldeari buruzko lan bat,
eta atzeratuena GUREAK tai-
larrari buruzko beste bat
izango duzue ikusgai.

29

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*.
ATBren albistegia.
9.15. *Txatxaran*. Maider Egüés-
ek zuzendutako elkarrizketa
saioa. Gonbidatua: Itziar
Bartolome, idazle gaztea.

30

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*.
Albistegia.

31

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*.
Informatiboa.
9.15. *Ostiral Musikala*: Mar-
ta Izagirrek zuzenduta,
Arrasate Musikali eskaini-
tako saioa.

CALIBRA

by Opel



BENETAKO INGENIERIA ALEMANA

Zaldi hegalarien muturra, argi elipsoidal iraultzaileak eta spoiler integratuak. 150 zaldi arteko potentzia duten motorrak, katalitzailedunak, 16 balbula, injekzio elektronikoa eta trakzioa aurrekaldean edo lau gurpiletara dutenak. Eta, horretaz gain, honokoak dituen serieko ekipamendua: **ABSa, direkzio**

lagundua, aire egokitua, chech-control-a, irrati-kasette estereoa, lapurreten kontrako alarma, aleaziozko llantak, leihoigotzeko elektrikoak, sarraila zentralizatuak...

Fabrikanteak aholkatutako prezioa (Penintsula eta Baleareetarako). Garraioa, BEZa eta entregatu aurreko gastuak barne.



Zain gaituzu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

Esperientziaz onenak

OPEL 
Kontzesionario ofizialak